

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Laguntza pertsonala eskaintzeko, Marienea erakundearen emakumeak hitzaldiak ematera joaten direnean, institututetara edo jaietara, beraiekin eskumuturreko eta erloju batzuk eramatea, eta hitzaldia bukatzerakoan, norbaitek erosi nahi badu, haiekin zuzenean hitz egiteko aukera izango dute. Horrela, gure produktuari buruzko informazio gehiago nahi badute, haiei galderak egin ahal izango dizkiete.

Automatizatutako zerbitzuari begira, interneten bidez gure produktua eskaintzea eta aurkeztea da gure helburua, hau da, eskuragarria egoteko Marienea elkartearen hitzaldietara joan ezin diren pertsonentzat. Web orri, gure webgunean helbide bat egongo da, kasu honetan gure produktua salduko den lekua (Quilamaren aitonaren lokala), eta telefono zenbaki bat ere, eskariak egiteko, eta Marienea elkartearen pertsonak erantzun ezin dituzten galderak guri zuzenean galdetzeko. Webguneko atal batean, hainbat persona haien esperientzia pertsonalak kontatu ahal dituzte, eta haien iritziz, nola izango ziren esperientzia horiek, momentu horretan gure produktua izango balute.

